

Palestinar erresistentziari babesa adierazteko ehundaka pertsona bildu dira Bilbon eta Donostian

LA HAINE - EUSKAL HERRIA :: 21/09/2025

Donostian, bi ekintzaile Zurriola zubian zintzilikatu dira, errepidea hainbat orduz moztuz.

Atzo, larunbata, palestinar erresistentziari babesa adierazteko eta Israelen desagitea aldarrikatzeko bi mobilizazio burutu ziren Euskal Herrian. Goizean dozenaka lagun Bilboko erdigunean "Eutsi Gaza! Israel suntsitu!" lelopean konzentratu ziren. Arratsaldean, berriz, manifestazioa Donostian egin zuten eta mobilizazioarekin batera hainbat ekintzaile Zurriolako zubitik zintzilikatu ziren elkartasun ekimen desobediente gisa. Ekintza horren ondorioz, polizia eta suhiltzaile ugari bertaratu ziren lekura. Hala ere, errepidea hainbat orduz moztuta egon zen eta ekintzak difusio handia izan zuen, zenbait metrotara Zinemaldia ospatzen ari baitzen.

Palestinarekin Elkartasunak salatu zuenez, etengabeko bonbardaketa handien eta Gazako ia lurralde osoaren setioaren ondoren, Israel bere helburua gauzatzen ari da: "lurreko eraso baten bidez Gazako hiriburua erabat suntsitzea. Tankeek kaleetan aurrera egiten duten bitartean, Gazako biztanleak etxeak uzteko eta hegoaldera joateko behartuta daude. Eta hor ere, ez dute beraien bizitzak babesteko lekurik aurkituko".

Plataformak azaldu zuenez, ekintza hauekin Israelgo erregimen koloniala "Palestinako biztanle guztiak akabatzeko planarekin aurrera doa", eta plan hori Palestinako lurralde osoan burutzen ari dela, "bai Gazan, baita Zisjordanian ere", gehitu zuen. Ondoren, genozidio hori gertatzen ari den bitartean estatuek ez dutela ezer egiten, erakundeak eta enpresak konplizeak direla, eta ustezko ordezkari politikoek adierazpen lotsagarriak egiten dituztela salatu zuen. Gainera, plataformak ohartarazi zuen genozidak babesten jarraitzen dutela, "diruz eta armak salduz".

Egoera horren aurrean, herriak kaleak hartu dituela aldarrikatu zuen: "presioa jartzen, boikota egiten, errepideak mozten, portuak eta unibertsitateak geldiarazten, Gazarantz joaten, potentzia kriminal horren normalizazioa salatzen eta Palestinako herriari benetako elkartasuna adierazten, geldiezin bihurtu den elkartasuna".

Beranduago, esfortzuak biderkatzeko deia egin zuen, "egoerari arduraz aurre egin eta palestinar herriaren kontrako zapalkuntza eta sarraskiarekin amaitzeko". Bide horretan, Israel estatu genozida gisa izendatzen jarraituko dutela eta palestinar herriari elkartasuna adierazten jarraituko dutela garbi utzi zuen. Bukatzeko, urriaren 4an Iruñean izango den manifestazioan parte hartzeko deia zabaltu dute.

<https://eh.lahaine.org/palestinar-erresistentziari-babesa-adierazteko-ehundaka-pertsona-bildu>